

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak direla enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Gure egitasmoaren kasuan, hainbat baliabide beharko ditugu hark aurrera eramateko. Hasteko, baliabide fisikoak aipatuko ditugu. Gure baliabide garrantzitsuenak gure zakarrontziak dira, haiek gabe gure proiektua ez luke sentzurik izango, gure egitasmoaren oinarriak dira. Zakarrontziek egiten dute ia lan guztia guk bakarrik instalatu behar ditugu. Beste baliabide izango litzateke gizarte-etxeak, gure zakarrontziak bertan jarriko ditugulako jendeak zakarrontzi bat izateko haien etxetik gertu. Lurpeko hodiak nabarmenak dira gure egitasmoan, lana murrizten dietelako gardelegiko langileei eta zaborra ez dutelako garraiatu behar kamioietan, eta honela askoz gutxiago kutsatuko dugu makina bat bidai sahiesten ditugulako. Gardelegia beste elementu aipagarria da, gure zaborra jasotzeko prest daudelako eta gainera, lehen aipatu dugunez, laguntzen diegu zakarra biltzen. Kontratatutako informatikariek oso lan handia egiten dute, gure balantzak prestatzen dituztelako zakarrontzietan sartzeko, txartelak egiten dituzte non gordetzen da birziklatutako kopurua eta plakak digitalak maneiatzen dituzte. Horretarako, punta-puntako teknologia erabili beharko dituzte, azkenengo ordenagailuak, materialak... Hainbat sari banatuko ditugu, Elkar denda, Fundicion eta Etorkizun supermerkatuen laguntzarekin deskontuak banatuko ditugu. Deskontu hauek arropan, janarian eta eskolako materialean izango dira.

Zenbait baliabide intelektualak eta giza baliabideak behar ditu gure egitasmoak, hala nola, gure taldearen sormena ideia hau asmatzeko, hobetzeko eta mundua aldatzeko gogoia. Hiru pertsonok asmatu genuen zakarrontzi hauen proiektua, gure gizartearen kontzientziazio falta aldaketa klimatikoari buruz mudatu nahi genuen, gure lurra hiltzen ari garelako eta ondorioz, gu hilko gara. Baina, ideia hau ezingo genuke aurrera eraman kanpoko laguntza gabe, hau da, Udala, Gasteizko gardelegia, Alboka Soft Tecnologías de la Información S.L., Elkar denda, Fundicion eta Etorkizun supermerkatua. Lehenengo momentutik, denek nahi izan zuten gure proiektuan parte hartu, gainera ideia mordo eman zizkiguten gure ideia hobetzeko, eta horrela hasi zen gure egitasmoa garatzen eta handitzen. Oso eskuzabalak izan dira denak gurekin eta asko ikasi dugu haiengan. Baina,

guztiok zerbait daukagu amankomunean, gizartearen bizi-kalitatea hobetu nahi dugula eta eskeini ahal ditugun erraztasun guztiak zalantzarik gabe emango ditugu.